

AITZINA

Editorea: Fermin Muiñariz. Koordinatzailea: Mariasun Motzón. Aholkularia: Inaki Egoña. Diseñatzailea: Juan Luis Napal. Helbidea: Rincón de la Aduna, 18 behe, 31001 Iruña. Tfnoa. 948-21 99 99. Faxa: 948-212329. E-mail: 7k@sendapet.es.

NORANTZA

Heko Kolektiboa

«Komunikabideak kritikoki deskodetu behar dira»

Orain dela hiru urte lagun talde bat bildu zen Gipuzkoan, Mitjans talde katalanak erakutsitako esperientzia Euskal Herrian aurrera eramatea helburu. Lagun talde honetan Elena Sarasa, Antxon Alfaro,

Enrike Riaño eta Joxemi Korrea zeuden, besteak beste, eta egun pertsona gehiago daude Heko, hezkuntza eta komunikabideen artean dagoen lotura sakontzeko asmoz.

BEGOÑA SIMÓN

Nondik eta nola sortu zen Euskal Herrian halako kolektibo bat osatzeko ideia?

Hasieran, orain dela hiru urte inguruan, pertsona batzuek hezkuntza alorreko talde bat osatu genuen, beste edozein elkarte bezala. Garai horretan beste aurrepauso bat egin genuen eta Mitjans talde katalanarekin jarri ginen harremanetan. Talde honetan hezkuntza alorrean lan egiten zuten kazetariek biltzen ziren, hezkuntza eta komunikabide munduak sakontzeko, eta arrakasta handia zeukan taldeak. Guk antzeko esperientzia bat jarri nahi genuen martxan hemen, eta horretan gaude momentu honetan.

Sortu zenetik orain arte, zein aurrepauso eman ditu taldeak?

Taldeak, lehenik, plan bat osatu zuen eta Hezkuntza Departamentuan arketu zuen. Proiektu hori onartu zuten eta guk martxan jarri genuen helduen hezkuntza mailan. Orain Trintxerpeko Karmengo Ama Ikastetxean esperientzia berri bat dago martxan, eta esperientzia horren barnean guk egokitu dugun telebistaren irakurketa.

Hekoren ustez, nola jokatu dute komunikabideek gure gizarteak?

Komunikabideek errealitate bat erakitzen dute. Lehen, ezagupenak hezkuntzan jasotzen ziren, baina egun komunikabideek, batez ere telebistak, egiteko garrantzi-
tzua dute maila horretan. Kontuan hartu behar da, gainera, errealitate horrek interes konkretu batzuei erantzuten diela, errealitate hori manipulatu dago eta hori salatu eta aztertu egin behar da. Horregatik ikasi behar da kritikotasun puntu batez deskodetu.

tzua dute maila horretan. Kontuan hartu behar da, gainera, errealitate horrek interes konkretu batzuei erantzuten diela, errealitate hori manipulatu dago eta hori salatu eta aztertu egin behar da. Horregatik ikasi behar da kritikotasun puntu batez deskodetu.

Kritikatu duzue komunikabideen jokaera, baina, kolektiboaren ustez, nola jokatu beharko zuten?

Oso zaila da esatea gizarte utopiko batean zein jokaera izan behar zuten edo zer egin beharko zuten, baina badakigu zer ez zuten egin beharko. Hor baloreen garrantzia, adibidez, sartzen da. Gaur egun haurrek telebistatik jasotzen dituzten estereotipoek ondorio inportanteak ekartzen dituzte, eta horietako bat anorexiaren arazoa dugu. Haurrek eta helduek komunikabideak jasotzen dugun errealitatea manipulatu dago.

Hausnarketa hau egin ondoren, nola begiratzen dio Hekok etorkizunari?

Heko kolektiboa gauzatzen ari den talde bat da oraindik, eta hemendik aurrera desafio asko izango ditu. Lortu behar dugun lehenengo gauza ofizialtasuna da. Gaur egun hogeita hamar pertsona inguru biltzen gara, baina zenbaki hori handitu behar da, eta egun presentzia Gipuzkoan batez ere badugu, Euskal Herriko beste herrialdeetara zabaldu behar dugu. Helburu horiekin batera badugu beste zenbait ere, estatutuak arketu eta onartzea, adibidez. Aldi berean, gure helburuak zehaztu behar ditugu, sakondu, eta lan taldeak osatu.



Hik Hasi

Aitzindariak

THIBALT I
1 2 0 1 1 2 5 3



Zirtoka

Txillardegi

Breizh-tik

Apirilaren 2an ospatu zen Rennes-ko Unibertsitatean Per Denez irakasle jinkitsu, bretoiin militante, eta gu euskal abertzaleon adiskide nekagaitzaren gorazarre hunkigarra.

Arete Nagusia, entzulez gainetza. Renneko Alkatea bera barne. Perek (bere 78 urteetan orain, baina beti erne) kolore guztietako bretoiinarrren errespeta bildu batur.

Hev brezhonegh, Breizh abet, diote hango abertzalek. Alegia, bretoierririk gibe, Bretoiinarrak ez. Eraso latza jasan du bretoierrak mende honetan, eta gaur oso egoera larria dago. Denezen omeneko ekitaldian bertan... sei hizlarietarik bakar bat mintzatu zai gu hango hizkuntza. «Pour que tout le monde comprenne...» badakizue. Nola edo hala, frantsesa aurrera.

Parisko gobernuak ia-ia lortu du bretoierra errotik erazteko helburua. Mende hasieran milioi bat hiztun zeukan bretoierrak. Gaur, aldez, milioi laurden bat; zaharrak gehienak, txiroak, arlotak, herri txiki askotan sakabatuak; eta etxetik at mintzatzan auzarten ez diren horietakoak.

Egoera, hitz batez, hizkuntzak suntsitzeko bezperan beste hamaita bazerretan ezagutu duten berbera.

1950az gerotik, bretoierraz dakiten guraso elebidunek frantsesez hitz egiten diete seme-alabei. Etena da katea.

Bretaina Askatua zinez nahi duten abertzaleak Emgann mugimenduan elkartu dira. Eta Frantziatik at nahi dute beren herria.

Bide beretik hizkuntz onarriak prestatzen ari direnek, Karnez-en sortuko dute aurki kultur erakunde sendo bat. Beronen Aurrerakidua hau dio bere 2. artikuluan: «Elkarteko lan-hizkuntza bakarra bretoierra izango da».

Per Denez irakasleak eskuldunon borroka miresgarria eta Joseba neronen semearen kasoa aipatu ditu bere hitzaldian. Bretoiin horretantxe laguntza jaso duten euskal aberdekek ongi dakite Anaitasuna hitzak lan zer adierazten duen.

Eta Per zaharrarengan aita-pontekoa eta profeta omendu dute.

A S I S K O + L I R O I D E N A V A R R E